

**Gizarte eta Laguntza arloa
SGAE eta SGAE FUNDAZIOA**

SGAE ACTUA III.DEIALDIA:

Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusiren (SGAEren) Bazkideen Departamentuak egiten du deialdi hau bazkide langabetuek laguntzak jaso ditzaten euren proiektuak, zineforumak, *sketchak* zein ekimenak garatzeko SGAErekin elkarlanean aritzen diren zentroetan.

SGAEk hainbat Gobernu kanpoko erakunderekin, elkarterekin, gizarte erakunderekin, presondegirekin eta hospitalerekin lankidetzak hitzarmenak sinatzen ditu; hori dela eta, SGAEk partaide horien beharrak ongi ezagutzen ditu.

Laguntza hauek lanik ez duten bazkideei zuzenduta daude, errepresentazio, tailer edota beste musika, ikusentzunezko zein arte eszeniko formatu ezberdinez egindako programa batean sartzeko euren lanbidea gara dezaten. Programaren gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da.

OINARRIAK:

I. ONURADUNAK

Laguntza hau SGAEko autore bazkideen talde/konpainiei zuzenduta dago (bost taldekideak gehienez). Bazkide guztiak botodunak izateaz gainera, ondoko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Autore bazkideak langabetuak izan behar dira.
- 2018ko IPREM delakoaren (6.545,03 €) bikoitzarekiko berdina edo txikiagoa den urteko dirusarrera izatea.
- Autoreek beren lanaren froga bat aurkeztu beharko dute aditu batzorde batek azter eta berma dezan eskatzaileak gai direla eskatutako ekimena/k burutzeko nahiz ezarritako epea errespetatzeko. Autoreek onartutako baldintzak bete ez izanez gero, laguntza bertan behara geratuko da.

II.-EDUKIA

- Taldekide guztiek lan-kontratu bat izango dute, Gizarte-Segurantzaren altarekin, programaren hiru hilabeteen epean egindako saio bakoitzean.
- Taldekide guztiek (bost gehienez) antzerki, musika edo ikusentzunezko programa batean parte hartuko dute. Ekitaldiak presondegietan, ospitaletan eta gizarte nahiz gobernuz kanpoko erakundeetan egingo dira. Aldez aurretik, Sgae akordio bat sinatuko du erakunde partaideekin, autoreen lan egiteko aukerak bultzatzeko asmoz.

III.- ESKAERA AURKEZTEKO BETEBEHARRAK

1. Eskaeran jarri behar da deialdiaren izena:

SGAE ACTUA III. DEIALDIA

2. Dokumentazioa bidali ahal da postaz (*Autore eta Argitaratzaileen Elkarte Nagusia. Fernando VI kalea 4. 28004 Madril*) nahiz e-postaz (sgaeactua@sgae.es).

3. Eskaerak bidaltzeko epea 2017ko urte osokoa da, eta emaitzak ezagutuko dira *Bazkideen Arreta Soziala eta Emergentziazko Laguntzak (APS)* arloaren lan taldek ezarritako bileren egutegiaren arabera.

Deialdian parte hartzeko hurrengo agiriak bidali behar dira:

- Behar bezala betetako eskaera-orria.
- NAN/AIZ agiriaren kopia.
- Azken erretaren aitortpena (2015. edo 2016. urtekoa, Ogasun Agentziaren zergaldiaren arabera), edo Ogasun Agentziaren agiri negatiboa.
- Langabetua izatearen ziurtagiria (Enplegu-eskatzaile txartela).
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren lan-bizitzaren txostena.
- Eskatzaileek ondoko proiektu/ekitalditako bat prestatu eta aurkeztu beharko dute:
 - o Musika: proiektu artistiko bakarlari zein taldekoa (rock, pop, flamenko...), tailer bat...
 - o Ikusentzunezkoa: zineforuma, heziketa-tailerrak, hitzaldiak...
 - o Arte Eszenikoak: antzezlanak, dantza, *sketcha*, bakarrizketak, dantza, irakurketa dramatizatuak, tailerrak...Proiektu fisikoa edo proiektuaren esteka bidaltzea ezinbestekoa da. Halaber, proiektuak/ekitaldiak egokitu beharko dira SGAEn erakunde partaideen helburuei zein aurkezteko espazioen ezaugarriei. Horrez gainera, proiektua taularatzeko tresneri, garraio eta instrumentuak eskatzaileak hornitu beharko ditu.

IV.- DEIALDIAREN XEDEAK

Deialdi honetan parte har dezakete gutxienez botu bat daukaten autore bazkide langabetuak, IPREM delakoaren bikoitzarekiko berdina edo txikiagoa den dirusarrekin (ez dira aintzat hartuko aktiboan diren bazkideak edo hirugarren batengandik kontratatuak izan daitezkeenak). Halaber, hiruhilekoan, autoreek 9 emanaldi / ekitaldi gehienez egitea onartuko dute, ezarritako programazioan.

Laguntzek ez dute atzeraginezko ondoriorik, ezin izango dira berriro eskatu hurrengo urtean, eta autore berak ezin izango du laguntza bat baino gehiago jaso urte berean. Dena dela, laguntza jasotzeko eta mantentzeko ezinbestekoa da onuradunak proposatutako ekimenak/lanak onartzea.

Dirulaguntzak aurrekontu baliagarriaren arabera emango dira.

V.- DEIALDIAREN ZENBATEKOAK

Kalitate artistiko zein pedagogiko kalitate altuenetako eta kultur zentroari ekitaldi zabalagoa eskaintzen dioten eskaerei lehentasuna emango zaie.

- Emandako zenbatekoa taldeko kideen arabera izango da:
 - Autore bat: 200 € saio batez
 - Bi autore: 300 € saio batez (bien artean banatzeko).
 - Hiru autore: 450 € saio batez (hiruren artean banatzeko).
 - Lau autore: 600 € saio batez (lauren artean banatzeko).
 - Bost autore: 750 € saio batez (bosten artean banatzeko).
 - (Gehieneko saio kopurua 9 izango da).

Taldekie bakoitzari lan-kontratu bat egingo diote saio bakoitzean, Gizarte Segurantzaren altarekin.

Tresneri, garraio, instrumentuei... dagozkien gastuak saioaren ordainketan barne izango dira.

Madril, 2018ko martxoaren 9an